

PRENSA OHARRA:
‘EAE-KO GAZTEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA: informazioa, esperientziak, asmoak’
IKERLANA AURKEZTU DU
GAZTERIA ZUZENDARITZAK

Eusko Jaurlaritzak mugikortasuna sustatzeko hainbat egitasmo garatu izan ditu azken urteotan, besteak beste, gazteriaren, hezkuntzaren, lanaren edo lankidetzaren arloetan. Egitasmo horietan parte hartzen dutenek trebetasun berriak —hala profesionalak nola pertsonalak— eskuratzen dituzte; atzerriko hizkuntzetako gaitasun linguistikoak indartzen dituzte; euren prestakuntza zabaltzen dute; lan-esperientzia lortzen dute atzerrian; eta kulturartekotasuna lantzen dute, bai eta adimena errealitate berrietara irekitzen ere.

Gazteen mugikortasuna sustatzea garrantzizkoa da prestakuntza hobetzeko eta berau mundu globalaren premietara moldatzeko. Horren erakusgarri, Europar Batasunak 2010eko irailean Gazteak Ibilian ekimena abiarazi du, hazkunde ekonomikoa bultzatzea eta lanpostuak sortzea helburu duen Europa 2020 estrategiaren zazpi proiektu enblematikoetako bat.

Gazteria Zuzendaritza gazteen mugikortasuna sustatze aldera garatzen ari den ekimen ugarietako bat da gaur aurkeztu nahi dugun ikerlana. Bere helburua **EAEko gazteen nazioarteko mugikortasunaren egungo egoera** ezagutzera emango duten oinarritzko adierazleak eskuratzea da. Gai horren gaineko datu estatistikorik ez dagoela ikusita, **Gazteen Euskal Behatokiak** inkesta egin die 15 eta 29 urte bitarteko gazteei. Bertan, honako alderdi hauek aztertzen dira: gazteak aurrez atzerriara joan izana; atzerriara joateko prest egotea, ikastera, lan egitera edo boluntario- nahiz lankidetzaz lanetan aritzera; ezagutzen dituzten hizkuntzak, eta hainbat mugikortasun-baliabideri buruz duten informazio-maila.

Ikerlanaren emaitzak azaldu aurretik, Gazteria Zuzendaritzak mugikortasuna sustatzeko garatzen dituen beste zenbait ekimenen berri emango dugu laburki.

GAZTERIA ZUZENDARITZAK GAZTEEN MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO
GARATZEN DITUEN EKIMENAK

- **Gazteria Zuzendaritzaren laguntza ekonomikoa**

Diru-laguntzen agindu berria argitaratu da 2011n, estreinakoz. Bere helburua da **gazteen mugikortasunera edo Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko gainerako eskualde nahiz estatu kideetako gazte-taldeen trukeetara bideratutako jarduerak bultzatzea**. Izan ere, 200.000 €ko diru-laguntza hori beste tresna bat izango da Euskadiko erakundeei gazteen mugikortasun- eta truke-jarduerak gauzatzen laguntzeko eta, hartara, gazteen integrazioa sustatzeko.

Jarraian adierazten diren arloetan gauzatzen diren urteko programetarako eta jarduera zehatzetarako jaso daiteke diru-laguntza:

- Gazteen mugikortasunera edo trukeetara bideratutako jarduerak, Europar Batasuneko beste estatu edo eskualdeetako elkarte edo entitateekin batera ekintzak gauzatzeko.
- Gazteen mugikortasunarekin edo trukeekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen-, zabalkunde- edo prestakuntza-jarduerak.

Lehenengo epealdian emango diren laguntzei esker —2011ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era gauzatukoak—, EAEko 120 gazte inguruk alde anitzeko trukeetan parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko eskualde eta estatuetan, adibidez, Frantzia, Italia, Belgika edo Ipar Irlandan.

- **Europako Gazteak Ekinean egitasmoa.**

Gazteak Ekinean egitasmoak gazteen mugikortasuna sustatzen du, hala Europar Batasunaren barruan, nola kanpoan ere. Elkartasun- eta tolerantzia-sentimenduak piztu nahi ditu gazteengan, eta gazteak Europar Batasunaren eraikuntzan engaiatu.

Hezkuntza ez formalaren baitan kokatuta dago, eta aukera gutxiago dituzten gazteei lehentasuna ematen die. Hartara, **gizarte-inklusioa eta kultura-arteko elkarrizketa sustatzen dira.**

Gazteak Ekinean programan hainbat ekintza daude barne hartuta: **gazteen trukeak, gazteen ekimenak edo Europako Boluntario Zerbitzua**, besteak beste. 15 eta 28 urte bitarteko gazteei zuzendurik dago, ekintza batzuetarako, adin-tarte hori 13 eta 30 urte bitartean kokatzen bada ere.

Aurten, gai hauetako bat edo batzuk kontuan hartzen dituzten proiektu-proposamenek izango dute lehentasuna: Boluntario Lanaren Europako Urtea; gazteen langabezia; pobrezia eta bazterkeria, bereziki gazte etorkinen, ezgaituen eta ijitoen inklusioa; sormena eta enpresa-ekimena; ingurumen-erronkak eta klima-aldaketa; eta Europa-Txinako Gazteen Urtea.

Gazteak Ekinean egitasmoa deszentralizaturik aplikatzen da, bere helburuak onuradunengandik ahalik eta gertuen lan egitea eta programa herrialde bakoitzean gazteriaren arloan dauden sistema eta egoera aniztetera egokitzea direlako.

Horren haritik, Euskadik 236.873 € jasoko ditu Espainiako Gazteriaren Erakundetik (Injuve). Guztira, sei milioi euro inguruko diru-laguntzak banatuko ditu erakunde horrek autonomia-erkidegoen artean, Gazteak Ekinean 2011 egitasmoaren baitan.

Urtea hasi zenez geroztik, gazteen trukeak egiteko nahiz Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko bost proiekturi diru-laguntza emateko proposamena egin du Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak, 80.000 €koa, guztira. Proiektu horietan Euskadiko 100 bat gaztek hartuko dute parte.

- **Gazteriaren arloko profesionalen prestakuntza**

Gazteekin lan egiten duten profesionalen prestakuntza esku-hartze estrategikoa da gazteen artean mugikortasun-baliabideak ezagutzera emateko. Gazteria Zuzendaritzak, Gazteen Euskal Behatokiaren bitartez, **Gazteen mugikortasun-baliabideak Europar Batasunean** izeneko ikastaroa eskaini du hilaren 21ean, 22an eta 23an, eta bertan hogeita hamar bat profesionalak hartu dute parte.

2011ko amaiera aldera, **Europako mugikortasun-baliabideen on-line gidaliburua** aurkeztuko da aipatutako prestakuntza horren osagarri, Europar Batasuneko beste herrialdeetan ikasi, lan egin edo bizitzeko aukera guztiak tresna bakarrean biltzeko.

- **Mugikortasuna Sustatzeko Europar Baliabideen Zentroa**

Europak eta bertako erakundeek aukera ugari eskaintzen dizkiete egun Euskadiko gazteei bidaiatzeko, ikasteko, beste kultura bat bizitzeko, hizkuntzak ikasteko eta pertsonalki garatzeko. Alabaina, aukera horiek gazte gutxik aprobetxatzen dituzte, ezagutzen ez dituztelako edo orientazio- eta motibazio-falta dela medio. Hori dela-eta, beharrezkoa da Europar Batasuna gazteei eta gazteen erakundeetan lan egiten dutenei hurbiltzea.

Horren ildotik, Eusko Jaurlaritza Mugikortasuna Sustatzeko Europar Baliabideen Zentroa taxutzen ari da. Europa eta bere aukerak Euskadiko gazteen eskura jarriko ditu zerbitzu horrek eta mugikortasun-gaiei buruzko **informazioa, orientazioa eta aholkularitza** emango.

'EAE-KO GAZTEEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA' IKERLANA

OHAR METODOLOGIKOA

Ikerlana kuantitatiboa da, eta banakako telefonozko inkesten bidez gauzatu da. EAEn bizi diren **15 eta 29 urte bitarteko 1.500 pertsonak** osatutako lagin esanguratsuari egin zaizkio inkestak.

Informazioa 2010eko urriaren 28tik azaroaren 10era bildu zen.

Gazteen Euskal Behatokiak taxutu du ikerketa, bai eta emaitzak aztertu ere.

IKERLANAREN EMAITZA NAGUSIAK

- EAeko gazte gehien-gehienak atzerrira irten dira.
- Gazteen laurdenak hilabete edo gehiago igaro du atzerrian, nagusiki, ikasketak direla-eta.
- 10 gaztetik 4k aurten atzerrira irtetea aurreikusten dute, batik bat oporretara edo hizkuntzak ikastera, gehienbat ingelesa.
- Gazteek mugikortasunerako joera handia dute: aukera izanez gero, 10 gaztetik 8 atzerrira joateko prest egongo lirateke, ikastera, lan egitera edota lankidetzeta-lanetan aritzera.
- 10etik ia 7k ez dute behar adina informazio mugikortasun-baliabideei buruz. Ez dituzte Europako mugikortasun-baliabide gehienak ezagutzen, Erasmus eta Leonardo programak izan ezik.

1. blokea: ATZERRIAN IZANDAKO ESPERIENTZIAK

Lehenengo blokeak Euskadiko gazteen egungo egoeraren berri ematen du, mugikortasunari dagokionez. Bertan, atzerrira zenbat eta zertarako joan diren azaltzen da, eta sakonago aztertzen kanpoan hilabete baino gehiago eman dutenen esperientzia.

Gazte asko irteten dira atzerrira. Izan ere, **15 eta 29 urte bitarteko 4 gaztetik 3 atzerrira joan izan dira noizbait.**

Atzerrira joateko arrazoi nagusia aisia eta oporrak dira: hain zuzen ere, hamar gaztetik zazpi arrazoi hori dela medio atzerriratu dira.

Gainera, **4 gaztetik 1 atzerrira irten da noizbait hizkuntzaren bat ikastera edo hizkuntza-maila hobetzera.**

Gainerako datuei dagokienez, nabarmendu beharra dago %9 lan egitera, praktikak egitera edo ikertzerara joan direla atzerrira.

4 gaztetik 1ek HILABETE BAINO GEHIAGO EMAN DU ATZERRIAN. Hilabetetik gorako egonaldia esperientzia adierazgarria izateko moduko epea dela iritzi izan diogu.

Egonaldi horien arrazoi nagusia ez da oporretara joatea, ikastea baizik: atzerrian egonaldi "luzea" egin dutenen erdiak baino gehiago **ikasten** egon dira (**%56,2**). Horiei aldi berean lanean eta ikasten ibili direnak erantsiz gero, ehunekoak %61,2raino igotzen da.

Atzerrian hilabete baino gehiago egon direnen %11,8 lan egitera joan dira. Zifra hori %16,8raino doa aldi berean ikasten eta lanean aritu direnak aintzat hartzen badira.

Atzerrian hilabetetik gora eman dutenen egonleku ohikoenak Erresuma Batua eta Irlanda izan dira (%34). Jarraian, Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada daude (%13,3). Beraz, **nahiago izan dira ingelesa hizkuntza nagusi duten herrialdeak.**

Komunikazio-teknologiak beste herrialde batzuetako jendearekiko harremanak erraztu egiten dituzte. EAEko gazteen %41,8k beste herrialde batzuetako gazteekin harremanetan daudela diote, sare sozialen edo *chat* bidez. Ohitura hori zabaldugo dago atzerrian hilabete baino gehiago egon direnen artean.

2. blokea: ATZERRIRA JOATEKO ASMOA

Ikerlanaren bigarren atal honetan, bidaiatzeko asmoari dagokionez, bi denbora-erreferentzia erabili dira: lehenengoa 2011. urtea da (epe laburra) eta bigarrena eperik gabea da, hau da, bidaiatzeko asmo orokorra aztertu da. Motibazioak, norakoak eta nahiago diren jarduerak landu dira.

EAEko gazteen %39,2k aurten atzerrira irteteko asmoa dute. Unibertsitateko titulazioa dutenek eta atzerrian hilabetetik gora egon direnek (%52,9 eta %58,6, hurrenez hurren) 2011n bidaiatzeko asmo gehien dute.

Aurten atzerrira irteteko asmoa erakutsi dutenen artean, arrazoi nagusia oporretara, ikasketa-bidaietara udalekuek edo turismoa egitera joatea izan da (%50,8). Bigarren arrazoi nagusia **hizkuntza bat ikastea edo hizkuntza-maila hobetzea** izan da (%40,1). Hirugarren arrazoi aipatuena kontzertuetara, jaietara, jaialdietara edo kirol-ikuskizunetara joatea izan da (%23,4). %13,7k diote **lan egitera, praktikak egitera edo ikertzerara joango direla atzerrira 2011n.**

Laster atzerrira joateko asmoa dutenek nahiago dituzten norakoak hauek dira: Erresuma Batua eta Irlanda (%20,9), Frantzia (%12,5), Italia (%7,9) eta Alemania (%6,4). %13,9k Europar Batasuneko beste herrialde batzuk hautatu dituzte eta %4k Europar Batasunetik kanpoko Europako beste herrialderen bat. Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada nahiago dituztenak 2011n bidaiatzeko asmoa dutenen %10,7 izan dira.

Atzerrira lan egitera joateko prest egongo liratekeen galdetu zaie gazteei, eta **%65,1ek** "bai, seguru" edo "beharbada bai" erantzun dute. **Ikastera joateari dagokionez**, gauza bera erantzun dute **%60,3k**. **%55,9** prest egongo lirateke **boluntario- edo lankidetzara lanak egitera irteteko.**

Arrazoi horietako bat edo batzuk direla medio, atzerrira bidaiatzeko prest daudenak aintzat hartzen baditugu, **EAEko gazteen %80k atzerrira joatearen aldeko jarrera dute.**

Atzerrian lan egin edo ikasteko prest leudekeenei (%74,3) esperientzia horren abantaila nagusiak zein diren galdetu zaie. 10etik ia 7k diote abantailarik nagusia hizkuntzak ikasi edo hizkuntza-maila hobetzea izango litzatekeela. Erdiek baino gehixeagok toki eta ohitura berriak ezagutzea nabarmendu dute. Curriculumak hobetzeko ezagutza berriak eskuratzea edo lana aurkitzea, aldiz, ez dira oso aipatuak (%29 eta %16,9, hurrenez hurren).

Inkestari erantzun dioten gazteen %56k, atzerrian ikasi edota lan egitekotan, nahiago dute Europar Batasunera joan. Jarraian, Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada datoz (%20,8).

Atzerrira ikasi edo lan egitera joateko prest ez daudenek emandako arrazoiaren artean, honako hauek dira aipatuena: familia, bikotekidea edo lagunak utzi nahi ez izatea (%44), lana edo ikasketak utzi nahi ez izatea (%42) eta behar den besteko hizkuntza-maila ez izatea (%36).

3. blokea: MUGIKORTASUN-BALIABIDEAK

Inkesta honetako hirugarren blokea mugikortasun-baliabideetan oinarritzen da, eta bertan honako gai hauek lantzen dira: EAEko gazteek atzerriko hizkuntzetan duten jakintza-maila, mugikortasun-baliabideei buruzko informazio-mailaren balorazio subjektiboa eta, azkenik, programa, beka eta informazio-zerbitzu batzuen ezagutza-maila.

Dagoeneko ikusi dugu hizkuntzen jakintza-maila atzerrira joateko prestasunarekin lotuta dagoela. Hori dela eta, EAEko gazteek ezagutzen dituzten atzerriko hizkuntzak aztertzen ditu inkestak.

Gazteen erdiek diote atzerriko hizkuntzaren batean ongi edo nahiko ongi hitz egiten dakitela. Hizkuntza guztietan, **ingelesez** dakite gazteek hein handiagoan. Izan ere, **%48,3k** ingelesez hitz egin dezakete. Frantsesez eta alemanez dakiten gazteen ehunekoa oso apala da, %5 eta %1, hurrenez hurren. Gainera, %5ek diote beste hizkuntza batean mintzatzen dakitela. Horien artean, italiara, portugesa eta txinera nabarmentzen dira.

Egun, 10 gaztetik ia 3 atzerriko hizkuntzaren batean mintzo dira eskola-ordutegitik kanpo. Horietatik, %90 inguruk ingelesa ikasten dute. Gehien ikasten diren hizkuntzen artean, bigarrena alemana da. Nabarmen gutxiago dira beste hizkuntza batzuk ikasten dituztela diotenak: italiara, japoniera eta errusiera.

Berrito ere, argia da ingelesaren nagusitasuna atzerriko beste hizkuntzen aurrean.

Lanerako eta ikasketetarako komenigarria delako ikasten dute gazteek atzerriko hizkuntzaren bat eskola-ordutegitik kanpo.

Gazteei mugikortasun-aukera eta baliabideei buruz galdetutakoan, **informazio-maila kaskarra** dutela erantzun dute **10 gaztetik ia 7k**; 10etik 3k uste dute oso ongi edo nahiko ongi informatuta daudela.

Hala eta guztiz ere, 10etik 9k nazioarteko programa edo bekaren bat ezagutzen dute. %73k lagunak edota senideak bitartez ezagutzen dituzte baliabide horiek eta %61ek ikastetxeen bitartez.

Gazteen nazioarteko mugikortasuna sustatzeko programa batzuk ezagutzen dituzten galdetu zaie EAEko gazteei.

- Ikasketak egiteko eta enpresetan praktikak egiteko unibertsitateko ikasleek **ERASMUS** truke-programa da EAEko gazteen artean ezagunena (%83,8).
- Gazteen %45,2k **LEONARDO DA VINCI** programa ezagutzen dute, Lanbide Heziketako ikasleek atzerriko enpresetan egonaldia egitea sustatzen duena, besteak beste.
- **COMENIUS** programa Bigarren Hezikuntzako ikasleei zuzendurik dago. %17,4k baino ez dute ezagutzen.
- Azkenik, %15,2k ezagutzen dute **GAZTEAK EKINEAN** programa, gazteen trukeak eta boluntario- eta lankidetzajarduerak barne hartzen dituena.
- Bekei dagokionez, **EUROPAKO BEKAK** (Jean Monet, Robert Schumann, Marie Curie eta abar) ezagunagoak dira nazioartekoak (Fulbright, kasu) baino.

Programa edo beka horiek ez dira ezagutzen diren bezain erabiliak. ERASMUS da EAEko gazteek gehien erabili duten egitasmo-mota (%5,4).

Inkestari erantzun dioten 10 gaztetik ia 9k ez dute kualifikazioen europar ziurtagiri bat ere ezagutzen.

EAEko gazteen %9,4k ezagutzen dute Europako Kontseiluak bultzaturiko **EUROPASS**. European, bizitza osoan eskuratutako gaitasunak, titulazioak eta ziurtagiriak biltzen dituzten bost agiriz osatuta dago espediente pertsonal hori. Bertan, araututako ikasketak ez ezik, lan-esperientziak edo praktikak, trukeak, boluntario-lana eta abar ere sartzen dira. Ziurtagiria ez dago beren-beregi gazteei zuzendurik, Europar Batasunean ikasi edo lan egin nahi duen orori baizik.

%3,9k **YOUTHPASS** ezagutzen dute. Gazteak Ekinean programaren barruan (Europako Boluntario Zerbitzuan, gazteen trukeetan, prestakuntza-ikastaroetan eta gazteen ekimenetan) parte hartu izanaren eta bere bidez eskuratutako ikaskuntza ez formalaren egiaztagiria da.

Gazteei zuzendutako web-atari eta -orriak ezagutu eta kontsultatzeari dagokienez, honako datu hauek eskuratu ditugu: EAEko gazteen laurdenak baino gehixeagok gazteentzako informazioa eskaintzen duen **GAZTEAUKERA** ataria ezagutzen dute (%28,3); gutxiago dira **INJUVE** Espainiako Gazteriaren Erakundearen webgunea ezagutzen dutenak (%8,8); %7,3k **Gazteak Ekinean** egitasmoaren webgunea ezagutzen dute; eta, azkenik, %4,5ek baino ez dituzte **Europako Gazteriaren Ataria** (European Youth Portal) **edo Eurodesk** ezagutzen, gazteek Europan dituzten eskubideei eta aukerei buruzko informazioa dakartenak.

Atari edo webgune horiei egiten zaizkien kontsultei erreparatuta, ehunekoek behera egiten dute nabarmen. Nolanahi ere, **gazteentzako baliabideei buruz Interneten dauden atarrietatik, GAZTEAUKERA da kontsultatuena.**

Bilbao, 2011ko martxoaren 28a